

## **Borja Lázaroren azken lanen erakusketa batek desagertutako pertsonak gogoraraziko ditu Gasteizen, ostiraletik**

**Gasteiz, Galdakao eta Arrigorriagako alkateek eta desagertutako gazte gasteiztarraren amak Desagertutako Pertsonen buruzko VI. Topaketa Teknikoaren jarduerak aurkeztu dituzte**

Gasteizen eta Euskadiko hainbat lekutan egingo da Ageriko Arrazoirik gabe Desagertutako Pertsonen buruzko VI. Topaketa Teknikoa, maiatzean. Gasteiz, Galdakao eta Arrigorriagako alkateek —Gorka Urtaran, Ibon Uribe eta Asier Albizua, hurrenez hurren—, jardunaldien antolatzaile Marisol Ibarrolak eta Borja Lázaro gazte gasteiztarraren ama Ana Herrero aurkeztu dituzte antolatutako jarduerak, “itxaropenaren argia pizturik mantentzeko. Zaila da desagertzeak dakarren larridura eta ezintasuna irudikatzea. Gasteizen eta Euskadin badakigu zer den hori. Oso gertutik ukitu gaitu, Borja, Emilio eta Hodei bizilagunekin. Gure maitasun osoa haien familia eta lagunei”, adierazi du Gorka Urtarane.

Hain zuzen ere, desagertu aurretik Borja Lázarok egindako azken lanak jasotzen dituen erakusketa egingo da Gasteizen. Ahalegin handia egin behar izan da erakusketako argazkiak berreskuratzeko, jatorrizkoak, baita haren kamera eta ordenagailu pertsonala ere, desagertuta baitaude. Hori dela kausa, irudietako batzuek ur markak dituzte, edo desfokuratu samar daude; akats horiek ez dira Borjaren trebetasun faltari egoztekoak, baizik eta bereizmen gutxiko kopiak erabiltzeak dakartzan arazo teknikoei.

Borjaren azken erreportajeari buruzko erakusketarekin batera, Rafael Reina soziologo eta prentsa-argazkilariaren “Sociología visual de las desapariciones” lana jarriko da ikusgai. Proiektu bakana da hori, desagertutako pertsonen bila ari diren familien egoera eta Espainiako estatuan desagertutako pertsonen benetako egoera aztertzen dituen.

Aldi berean, azterlan soziologiko bat egin da, Espainian benetan zenbat desagertu dagoen zenbatzeko, orain arte ezin izan baitira eman gutxi gorabeherako zenbakiak baino —zeinak administrazioek gezurtatu egin baitituzte—: 14.000 desagertu eta identifikatu gabeko 3.000 gorpu.

Desagertuen bila ari diren familiei elkarrizketa sakonak egin zaizkie, eta jasotako datuei irudiak erantsi zaizkie. Desagertutako senide baten bila ari diren pertsonen egoera ezagutzeko eta horren berri emateko jaso da ikusizko informazio hori.

Maiatzaren 18tik 27ra arte ikusi ahal da erakusketa, Montehermoso kulturunean. Maiatzaren 18ko 19:00etan inauguratuko da erakusketa; Borja Lázaroren lagun Igor García Beitia abeslari eta konpositoreak joko du.

Mahai-inguru batek emango dio amaiera ofiziala erakusketari, hilaren 25ean; Borja Lázaroaren kasuaren egoera eta familien eta polizia kidegoen arteko harremana izango dituzte hizpide. Marisol Ibarrola arituko da moderatzaile, eta Borja Lázaroaren ama Ana Herreroek zein Ertzaintzako Pertsonen kontrako Delituen Arloko buru Hugo Prietok hartuko dute parte.

Gorka Urtaran alkateak berriro adierazi du “*Borjaren hiriaren, Gasteizen, laguntza eta elkartasuna*”.

Borja Lázaro gasteiztarra 2014ko urtarrilaren 7tik 8ra arteko gauean desagertu zen, Cabo de Velan (Kolonbia). Igarotako lau urteetan, haren familiak ez du aurkitzeko itzaropena galdu, eta etengabe mobilizatu da ikertzen jarrai dezaten, zer gertatu zen argitu eta Borja non dagoen jakitearren. Familiak ekimen ugari sustatu ditu, kasuak tiradera batean buka ez dezan. Behin baino gehiagotan, isiltasuna, axolagabekeria edo luzamenduak jaso dituzte erantzun gisa. Beste askotan, ordea, pertsona eta erakundeen sostengua ere izan dute.

## Una exposición con el último trabajo de Borja Lázaro recordará a las personas desaparecidas desde este viernes en Vitoria-Gasteiz

**Los alcaldes de Vitoria-Gasteiz y Arrigorriaga y la madre del joven gasteiztarra desaparecido presentan las actividades del 6º Encuentro Técnico sobre Personas Desaparecidas**

Vitoria-Gasteiz será una de las sedes del 6º Encuentro técnico sobre Personas Desaparecidas sin causa aparente, que se celebrará durante el mes de mayo en distintas localidades de Euskadi. Los alcaldes de Vitoria-Gasteiz, Gorka Urtaran y Arrigorriaga, Asier Albizua, la organizadora de las jornadas, Marisol Ibarrola y la madre del joven gasteiztarra Borja Lázaro, Ana Herrero, han presentado esta mañana las distintas propuestas organizadas para *“mantener la llama de esperanza. Es difícil imaginar la angustia e impotencia que conlleva una desaparición. En Vitoria-Gasteiz y en Euskadi sabemos lo que es. Nos ha tocado muy de cerca con nuestros vecinos Borja, Emilio y Hodei. Todo nuestro cariño, a sus familias y amistades”*, ha destacado Gorka Urtaran.

En Vitoria-Gasteiz en concreto se va a celebrar una exposición que recoge el último trabajo de Borja Lázaro antes de su desaparición. Las fotografías de la exposición han sido recuperadas tras un intenso trabajo ya que los originales, junto con su cámara y su ordenador personal están en paradero desconocido. De ahí que algunas de las imágenes presenten marcas de agua y un ligero desenfoque que no debe achacarse a la pericia fotográfica de Borja, sino a los problemas técnicos de la recuperación sobre copias con poca resolución.

Complementa la Exposición dedicada al último reportaje de Borja, una muestra titulada *“Sociología visual de las desapariciones”* realizada por el sociólogo y fotoperiodista Rafael Reina. Este proyecto es un caso de estudio inédito sobre la situación de los familiares que buscan a una persona desaparecida y la situación real de las personas desaparecidas en el estado español.

Paralelamente se ha realizado un estudio sociológico para cuantificar el número real de personas desaparecidas en el territorio español, ya que hasta la fecha sólo se han podido dar números aproximados, a la vez que desmentidos por las administraciones, de 14.000 personas desaparecidas y 3.000 cuerpos sin identificar.

Se han realizado entrevistas en profundidad a los familiares que buscan a una persona desaparecida y se ha incorporado la imagen al estudio como parte integrante de los datos recogidos. Éste tipo de información visual se ha recogido con la intención de conocer y divulgar la situación en que viven las personas que buscan a un familiar desaparecido.

La exposición se celebrará entre el 18 y el 27 de Mayo en el Centro Cultural Montehermoso. La inauguración de la exposición tendrá lugar en día 18 de mayo, a las 19,00 h. con la actuación de Igor García Beitia, cantante, compositor y amigo de Borja Lázaro.

Aunque la exposición permanecerá abierta durante el último fin de semana de mayo, el día 25 tendrá lugar la clausura oficial con una mesa redonda sobre la situación del caso de Borja Lázaro y la relación de las familias y los cuerpos policiales. En la mesa, que estará moderada por Marisol Ibarrola, tomarán parte Ana Herrero, madre de Borja Lázaro y Hugo Prieto, Jefe del Área de Delitos contra las Personas de la Ertzaintza.

El alcalde Gorka Urtaran ha vuelto a reiterar de nuevo *“el apoyo y solidaridad de la ciudad de Borja, de Vitoria-Gasteiz”*.

El gasteiztarra Borja Lázaro desapareció la noche del 7 al 8 de enero de 2014 en Cabo de Vela (Colombia). Durante los cuatro años transcurridos, su familia no ha perdido la esperanza de encontrarle y no ha dejado de movilizarse reclamando que continúen las investigaciones hasta esclarecer qué pasó y dar con el paradero de Borja. En este tiempo, han sido innumerables las acciones que la familia ha promovido para que el caso no acabe en un cajón. No pocas veces, se han encontrado con el silencio, la indiferencia o la dilación en el tiempo. Pero también han encontrado, en muchas otras ocasiones, el apoyo de personas e instituciones.